

IRUNVIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2026KO URTARRILAREN 28AN ONARTUTAKO

BIGARREN ETA ONDORENGO ESKUALDAKETEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEI, ERRENTAMENDU

ERREGIMENEAN ETA EROSKETA ERREGIMENEAN, JENDAURREAN JARTZEKO EPEAN

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA.

1. ALEGAZIOA.- ESPEDIENTEAK: 8525, 12592, 12729, 12844.

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek bizikidetzta-unitatea osatzen duten kideen aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu dute.

Esleipendun posibleen zerrendak egiteko epea itxi ondoren (2025/12/31) jaiotako kide berriak dira.

OINARRIAK:

"Babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdaketak esleitzeko prozedura", IRUNVIko Administrazio Kontseiluak 2025eko ekainaren 9an onartua, 22. artikuluan adierazten du IRUNVIko babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan onartutako eskabideak eskuratu ahal izango dituztela erosketan edo errentamenduan erabilitako etxebizitzaren aukera markatuta duten eskatzaileek.

"Irungo Udalaren babes publikoko etxebizitza-eskatzaileen erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren II. Eranskinak", inskripzioaren datuak mantentzea arautzen duenak, honako hau jasotzen du deialdi zehatz bati dagokionez: "inskripzio-aldia amaitutakoan, aldaketak onartu ahal izango dira seme-alaben jaiotzari, ezkontza berriei, legezko banantze berriei, dibortzioei eta heriotzei dagokienez".

EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen duenez, bizikidetzta-unitatearen osaeran izandako aldaketa epe barruan aurkeztu da, eta, beraz, espedientea egungo egoerara eguneratu behar da.

Alegazioa ONESTEIA eta puntuazioa egungo egoerara egokitzea proposatzen da.

2. ALEGAZIOA.- ESPEDIENTEA: 12114.

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileak bizikidetzta-unitatea osatzen duten kideen aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu du.

Eskaeraren titularretako baten heriotza da, esleipendun posibleen zerrendak egiteko epea (2025/12/31) itxi ondoren.

OINARRIAK:

"Babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdaketak esleitzeko prozedura", IRUNVIko Administrazio Kontseiluak 2025eko ekainaren 9an onartua, 22. artikuluan adierazten du Irunviko babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan onartutako eskabideak eskuratu ahal izango dituztela erosketan edo errentamenduan erabilitako etxebizitzaren aukera markatuta duten eskatzaileek.

"Irungo Udalaren babes publikoko etxebizitza-eskatzaileen erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren II. Eranskinak", inskripzioaren datuak mantentzea arautzen duenak, honako hau jasotzen du deialdi zehatz bati dagokionez: "inskripzio-aldia amaitutakoan, aldaketak onartu ahal izango dira seme-alaben jaiotzari, ezkontza berriei, legezko banantze berriei, dibortzioei eta heriotzei dagokienez".

EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen duenez, bizikidetzta-unitatearen osaeran izandako aldaketa epe barruan aurkeztu da, eta, beraz, espedientea egungo egoerara eguneratu behar da.

Alegazioa ONESTEIA eta puntuazioa egungo egoerara egokitzea proposatzen da.

3. ALEGAZIOA. - ESPEDIENTEAK: 8181, 11421, 12564.

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek 2024. urteari dagozkion diru-sarrereri buruzko dokumentazioa aurkeztu dute.

Bi espediente horiek ez daude sartuta Administrazio Kontseiluak 2026ko urtarrilaren 28an onartutako babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko behin-behineko zerrendan, IRUNVIK ezin izan dituelako eskatzaileen diru-sarrereren datuak ofizioz eskuratu.

OINARRIAK

"Babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdaketak esleitzeko prozedura", IRUNVIKO Administrazio Kontseiluak 2025eko ekainaren 9an onartua, 22. artikuluan adierazten du Irunviko babes publikoko etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan onartutako eskabideak eskuratu ahal izango dituztela erosketan edo errentamenduan erabilitako etxebizitzaren aukera markatuta duten eskatzaileek.

EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Eskaerak epe barruan aurkeztu ziren, eta diru-sarrereren baldintza betetzen dela egiaztatu da.

Alegazioak ONESTEA proposatzen da, eta errentamenduko bigarren eta ondorengo eskualdaketan etxebizitzetarako behin betiko zerrendetan sartzea, eta 11421 espedientearen kasuan, baita erosketako behin-behineko zerrenda berrietarako ere.

4. ALEGAZIOA. - ESPEDIENTEAK: 13650.

Jendaurrean jartzeko fasean, eskatzaileek 2024ko diru-sarrereri buruzko dokumentazioa aurkeztu zuten.

Espediente hori Administrazio Kontseiluak 2026ko urtarrilaren 28an onartutako babes publikoko etxebizitzak eskuratzeko behin-behineko zerrendan jasota dago, eta bertan titular baten diru-sarrerak baino ez ziren agertzen, IRUNVIK ezin izan zituelako titularraren diru-sarrereren datuak ofizioz eskuratu.

OINARRIAK

"Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak" 22.1 artikuluan ezartzen duenez, bizikidetz-unitateko kide diren eta babes publikoko etxebizitzaren titularkide izango diren pertsona guztiak hartuko dira kontuan diru-sarrera konputagarrien hartzaile gisa.

EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Eskaera epe barruan aurkeztu zen, diru-sarrereren baldintza betetzen dela egiaztatu da, eta beharrezkoa da bizikidetz-unitate osoaren diru-sarrerak izatea.

Alegazioa ONESTEA eta diru-sarrereri buruzko informazioa eguneratzea proposatzen da.

ERRENTAMENDU-ERREGIMENENKO BIGARREN ESKUALDATZEETARA SARTZEKO ZERRENDETAN OFIZIOZ EGINDAKO ALDAKETAK

ESPEDIENTEAK: 5875, 8148, 8386, 9832, 10111, 11583, 12032

Pentsiodunei dagozkien espedienteak dira.

Jendaurrean jartzeko fasean, egiaztatu ahal izan da espediente horiek ez direla sartu errentamenduko 2. eskualdatzeko etxebizitza eskuratzeko behin-behineko zerrendetan, diru-sarrerren % 90 ez datozelako lan-etekinetatik.

OINARRIAK:

"Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren" 20.1 artikuluan jasotakoaren arabera,

20. artikulua.- Diru-sarrerren jatorria.

- 1. Diru-sarrerren baldintza betetzat jotzeko, diru-sarrerren % 90 gutxienez lan-etekinetatik eta/edo jarduera ekonomiko, profesional eta artistikoen etekinetatik eta/edo beketatik etortzea eskatuko da.*

Baldintza hori ez zaie eskatuko etxebizitza babestua errentamendu-erregimenean eskuratzen duten pentsiodunei.

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Errentamenduko 2. eskualdaketen behin betiko zerrendetan, dagokien kupoan eta dagokien puntuazioarekin ESPEDIENTEAK SARTZEA proposatzen da.

ERRENTAMENDU-ERREGIMENENKO ETA EROSKETA-ERREGIMENENKO BIGARREN ESKUALDATZEETARA SARTZEKO ZERRENDETAN OFIZIOZ EGINDAKO ALDAKETAK

ESPEDIENTEA: 8584, 9457, 11587.

Espediente hauek babes publikoko etxebizitza baten esleipendun izan diren babes publikoko etxebizitza-eskatzaileei dagozkie.

OINARRIAK:

"Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren" 17.1 artikulua, *urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren* azken xedapenetatik lehenengoaren bidez aldatua (*147/2023 Dekretua, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa*). Bertan ezartzen denez, babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko, bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsona guztiek ez dute etxebizitzarik eduki behar jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo gozamen-eskubidean.

Era berean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 15/20/2012 Aginduak, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak eta araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoak, 8.3 artikuluan ezartzen du etxebizitza-eskatzaileen erregistroan inskribatzeko baldintzak ezartzen dituela: "Errentamendu-erregimenean babes ofizialeko etxebizitza bat, zuzkidura-bizitoki bat edo

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Espedienteei baja ematea proposatzen da.

5. ALEGAZIOA.- ESPEDIENTEAK: 8604, 9284, 10981

Jendaurrean jartzeko fasean, espediente hauen titularrek eskatu dute adinaren arabera dagokien puntuazioa berrikusteko erosketako 2. eskualdatzeen zerrendetan.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, egiaztatu da akats bat dagoela erosketako 2. transmisioetako zerrendetan adina kalkulatzeko. Zerrenda horietan ez zaie puntuaziorik eman 25, 30 eta 35 urteko eskatzaileei adinaren arabera.

Zehazki, 2. Babes Ofizialeko Etxebizitzen zerrendetan 217 espediente daude erosketaren 2. eskualdaketa eskatzen dutenentzat, eta 220 UETen zerrendetan, adina puntuatu ez zaienei.

OINARRIAK

Egindako alegazioen edukia ikusita, eta erosketako 2. eskualdaketen zerrendetan adina ez dela kalkulatu egiaztatu ondoren (zerrenda horietan ez zaie adinaren araberrako puntuaziorik eman 25, 30 eta 35 urte dituzten eskatzaileei), ondorioz gabe utzi behar dira "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketen parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak", zerrenda horiek behin-behinean onartu ziren, baremazio berri bat egiteko alegazio-egileek aipatu duten aldagaia kontuan hartuta; izan ere, bestela, urratu egingo litzateke babes publikoko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdaketak esleitzeko prozeduraren 24.1.c) artikulua agindutakoa, zeinak ezartzen baitu adjudikaziodunen zerrendak jabetza osoan edo azalera-eskubidean egiteko kontuan hartuko dela:

"C)Adina: Gehienezko puntuazioa 25 puntu.

25 puntu emango zaizkie 31 eta 35 urte bitarteko adina duten bizikidetz-unitateei. **15 puntu** 26 eta 30 urte bitarteko adina duten bizikidetz-unitateei eta **10 puntu** 23 eta 25 urte bitarteko adina duten bizikidetz-unitateei.

Puntuazioa emateko bizikidetz-unitateko kide zaharrenek duen adina hartuko da kontuan."

Begi-bistakoa da adinaren aldagaia ez betetzeak, "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketen parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak " prestatzerakoan, eragina duela alegaziogileengan eurengan, eta, gainera, eragina duela prozedurako gainerako interesdunen esparru juridikoan. Beraz, prozeduran interesdun guztien eskubideak eta interesak babesteko eta, era horretan, edozein norgehiagoka-prozeduratan arautu behar diren tratu-berdintasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak errespetatzeko aukera bakarra da alde aurretik proposatu den konponbidea hartzea, hau da, IRUNVIko Administrazio Kontseiluak erabaki bat hartzea, non ondorioz gabe uzten baitira "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketen parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak". Jarraian, prozedurak parte-hartzaile guztien eskubideak errespetatzen dituela bermatzeko, "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketen parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak" berriak argitaratu beharko dira, eta alegazioak aurkezteko beste epe bat eman. Epe horretan, interesdun orok egokitzat jotzen dituen egiteko eta zuzenbidezko kontsiderazioak egin ahal izango ditu.

EBAZPEN-PROPOSAMENA:

Begi-bistakoa denez, "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketetan parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak" prestatzerakoan adinaren aldagaia ez betetzeak, alegaziogileei eurei eragiteaz gain, eragina du prozedurako gainerako interesdunen esparru juridikoan ere, eta " Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketetan parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak" berriak onartzea proposatzen da.

Jarraian, prozedurak parte-hartzaile guztien eskubideak errespetatzen dituela bermatzeko, "Erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak erosteko erregimenean 2026rako bigarren eta ondorengo eskualdaketetan parte hartzeko eskaeren behin-behineko zerrenda barematuak " berriak argitaratzea proposatzen da, alegazioak aurkezteko beste epe bat emanez, interesdun orok egokitzen jotzen dituen egiteko eta zuzenbidezko kontsiderazioak egin ahal izan ditzan.

OHARRA: Era berean, alokairu-erregimeneko zein erosketa-erregimeneko etxebizitza erabilien zerrendei eragiten dieten alegazio baietsiak kontuan hartzea proposatzen da, bai errentamendu-erregimeneko bigarren eskualdaketak eskuratzeko behin betiko zerrendak egiterakoan, bai berriro argitaratu behar diren erosketa-erregimeneko bigarren eskualdaketan behin-behineko zerrendak egiterakoan.

Irunen, dokumentu hau sinatzen den egunean.

Sin.: Iñaki Campo Esnaola. Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa/Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAUko aholkulari juridikoa.